



CaixaBank-en Giza  
Eskubideei buruzko  
Printzipioak

2024ko otsaila

## Bertsioen kontrola

Bertsioa	Data [Kontseiluaren onarpena]	Kontrola
1	2019ko urria	Jatorrizkoa: CaixaBank-en Giza Eskubideei buruzko Politika Korporatiboa
2	2022/01/27	CaixaBank-en Giza Eskubideei buruzko Printzipioak
3	2024/02/15	Dokumentuaren eguneratzea berrikusi eta onartzea



# Aurkibidea

<b>1. Sarrera.....</b>	<b>3</b>
<b>2. Irismena eta aplikazio-eremua.....</b>	<b>3</b>
<b>3. Konpromisoak eta jarduteko printzipioak.....</b>	<b>4</b>
3.1 Gure langileekin dugun erantzukizuna.....	5
3.2 Finantza-zerbitzuen hornitzaile gisa dugun erantzukizuna.....	7
3.3 Hornitzaileekin dugun erantzukizuna.....	8
3.4 Komunitateko kide gisa dugun erantzukizuna.....	9
<b>4. Printzipioen inplementazioa eta komunikazioa.....</b>	<b>9</b>
<b>5. Gobernu-esparrua.....</b>	<b>10</b>
<b>6. Printzipioen eguneratzea.....</b>	<b>11</b>

## 1. Sarrera

CaixaBank, S.A.ren Administrazio Kontseiluak (aurrerantzean, "CaixaBank" edo "Erakundea"), Printzipio hauen bidez, nazioarteko estandar gorenekin bat etorritik Erakundeak giza eskubideekiko duen konpromisoa erakutsi nahi du.

CaixaBank-entzat, giza eskubideekiko errespetua bere balioen zati integrala da, eta enpresa-jarduera modu legitimoan garatzeko gutxieneko estandarra.

Era berean, uste du Gobernuak lehentasunez zaindu behar dituztela giza eskubideak, eta enpresek beren jarduera-eremuan horiek sustatzeko eta errespetatzeko erantzukizuna dutela.

Premisa horren arabera, eta bere Kode Etikoarekin eta Jarduera Printzipioekin bat etorritik, CaixaBank giza eskubideekiko errespetuaren kulturen aritzen da, eta bere langileak, laguntzaileak, bazkideak eta bere eragiketa, produktu eta zerbitzuekin lotura zuzena duten beste alderdi batzuk ere hala aritzea bultzatzen du.

## 2. Irismena eta aplikazio-eremua

Jarduera-printzipioak CaixaBank-ek bere langile, bezero, akziodun, hornitzaile, bazkide komertzial eta negozioak eta jarduerak garatzen dituen komunitateekin ezartzen dituen harremanen giza eskubideen gida dira.

Printzipio hauek CaixaBank-en langileei, zuzendariei eta gobernu-organoetako kideei aplikatuko zaizkie.

Era berean, Printzipio hauek korporatiboak dira, eta, beraz, CaixaBank Taldeko sozietateen gobernu- eta zuzendaritza-organoek erabaki egokiak hartu behar dituzte beren xedapenak sozietate horietan integratzeko, proportzionaltasun-printzipioari jarraituz, bai beren printzipioak onartuz, dokumentu honetan ezarritako printzipioen arabera, bai CaixaBank-en printzipioei atxikiz, behar bezala egokituta badaude.

Printzipio hauek ezartzen CaixaBank-en inplikaturako arloek hartu dute parte: Pertsonak, Erosketak, Beteazpena eta Kontrola, Corporate Risk Management Function, Iraunkortasun Arriskuak, ASG Arriskuen Onarpena, eta CaixaBank Assset Management, VidaCaixa, CaixaBank Payments and Consumer eta BPI filialek ere berrikusi dute dokumentua eta kanpoko aholkularitza espezializatua jaso da.

CaixaBank-ek Printzipio hauek sustatu eta ezagutzera emango ditu bere interes-taldearen artean. Gainera, CaixaBank-ek parte hartzen duen joint ventures-etan ere aplikatuko da.

### 3. Konpromisoak eta jarduteko printzipioak

CaixaBank-ek konpromisoa hartzen du nazioartean aitortutako eta honako hauetan jasotako giza eskubide guztiak errespetatzeko:

- Nazio Batuen Giza Eskubideen Nazioarteko Gutunak honako hauek biltzen ditu:
  - > Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala
  - > Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna
  - > Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna
- Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) Adierazpena, laneko oinarritzko printzipioei eta eskubideei buruzkoa, eta hark identifikatu dituen oinarritzko hamaika hitzarmenak.
- Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutuna.

Era berean, bere jardura araudi aplikagarria zorrotz betez eta estandar etiko eta jokabide profesional gorenekin bat etorritik egiteko konpromisoa hartzen du. Besteak beste:

- Nazio Batuen enpresei eta giza eskubideei buruzko printzipio gidariak.
- Enpresa multinazionalentzako ELGaren gidalerroak.
- Nazio Batuen Mundu Ituna.
- Nazio Batuen Emakumeen Ahalduntzerako Printzipioak.
- Ekuadorko Printzipioak.
- Nazio Batuen Ingurumenerako Programaren (UNEP FI) Finantza Ekimenaren Banka Arduratsuaren Printzipioak.
- Nazio Batuen Inbertsio Arduratsurako Printzipioak.

- Europar Batasunaren Giza Eskubideei eta Demokraziari buruzko 2020-2024 Ekintza Plana.
- Banku Arduratsuaren Printzipioen *Commitment to Financial Health and Inclusion*.
- Nazio Batuen herri indigenen eskubideei buruzko Adierazpena.
- Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa.
- Giza Eskubideen Defendatzaileen Adierazpena.
- Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioa.
- Arraza-bereizkeria mota guztiak ezabatzeari buruzko nazioarteko Konbentzioa.
- International Finance Corporation (IFC) erakundearen jarduera-arauak.
- Emakumearen aurkako bereizkeria-mota guztiak ezabatzeko Konbentzioa.
- Enpresa multinazionaleri eta gizarte-politikari buruzko lanaren nazioarteko erakundearen printzipioen hiruko Adierazpena.
- Giza Eskubideen Europako Hitzarmena.
- Finantza korporazioaren giza eskubideen gaineko eraginak ebaluatu eta kudeatzeko Gida.

CaixaBank-ek bere jarduerak izan ditzakeen eraginak ulertzeko lan egiten du. Halaber, kontrako inpaktu negatiboek aurrea hartzeko eta horiek saihesten laguntzeko eta, halakorik gertatuz gero, ahal den neurrian gutxitzeko, monitorizatzeko eta konpontzeko konpromisoa hartzen du.

CaixaBank-en Giza Eskubideen Printzipioak beste arau eta politika espezifiko batzuekin lerrokatzen dira, hala nola *Kode Etikoarekin*, *Ustelkeriaren aurkako Politika Korporatiboarekin*, *Iraunkortasun-arriskuak Kudeatzeko ASG Korporazio Politikarekin* eta *Compliance Penalari buruzko Politika Korporatiboarekin*, eta baita erantzukizun korporatiboaren arloko nazioarteko ekimenei atxikita ere.

## 3.1 Gure langileekin dugun erantzukizuna

CaixaBank-ek uste du bere langileekiko harremana dela giza eskubideen arloan duen erantzukizun nagusietako bat.

Pertsonen hautaketa-, kudeaketa-, sustapen-, ordainketa- eta garapen-politikak honako hauek errespetatzean oinarritzen dira: sexu-identitatea, genero-adierazpena, sexu-orientazioa, jatorri etnikoa, nazionalitatea, sinesmenak, erlijioa, iritzi politikoa, filiazioa, adina, egoera zibila, desgaitasuna eta zuzenbideak babesten dituen gainerako egoerak, eta langileen segurtasuna eta berdintasuna arriskuan jar dezakeen teknologiararen bereizketarik gabeko erabilera saihestean.

Ilido horretan, CaixaBank-ek alderdi hauei buruzko politikak eta barne-arauak ditu:

- Aniztasuna, inklusioa eta aukera-berdintasuna sustatzea, printzipio horiek Erakundearen ordainsari-politiken zati gisa hartuta. CaixaBank-ek konpromisoa du soldata-arrakala berrikusteko eta murrizteko eta ordainsarrietan berdintasuna sustatzeko.
- CaixaBank-ek talentua erakartzea sustatzen du jarduten duen tokiko komunitateetan, pertsonen erakarpene eta garapen profesionala bultzatzeko programekin. Gainera, tokiko komunitateen aniztasuna ere sustatzen du, Wonnow bekak, dibertsitate funtzionaleko Prevent Fundazioaren bekak eta Randstad UOC bekak bezalako programen bidez.

- Jazarpenaren, jarrera diskriminatzaileen eta agintekeriaren aurkako babesak.
- Adierazpen- eta iritzi-askatasuna.
- Askatasun sindikala eta grebarako askatasuna. CaixaBank-ek ziurtatu egiten du enplegatuari informazio nahikoa emango diola negoziazio kolektiboari eta langileen ordezkariari buruz, eta nola parte har dezaketen eta talde horretako kide izateko eskubidea nola baliatu.
- Datuen babeserako eta pribatutasunerako eskubidea.
- Elkartzeko eta negoziazio kolektiborako askatasuna.
- Segurtasuna lan-ingurunean.
- Langileen osasuna eta ongizatea, arrisku psikosozialak barne.
- Ustelkeriaren prebentzioa.
- Ordainsari duina, indarrean dagoen lan-araudiaren arabera.
- Familia eta lana bateragarri egitea errespetatzen duen lanaldia, aplikatzekoa den lan-araudian aurreikusitako baldintzetan.
- Lan-ordutegitik kanpo deskonexio digitala egotea.
- Garapen profesionala, garapen-programak eta prestakuntza bultzatzea, aniztasuna sustatzeko eta gizarte inklusiboagoa lortzen laguntzeko garapen-programa barne.
- Haurren derrigorrezko lanari eta pertsonen salerosketari uko egitea.
- Lan esparruan ingurumena babestea.

Printzipio eta arau horiek ezartzeko, CaixaBank-ek prestakuntza- eta sentsibilizazio-programak eta jarraipen-adierazleak ezartzen ditu.

Kanal konfidentzial batzuk daude CaixaBank-en jokabide-kodeak betetzea errazteko, eta, horien bidez, langileek haien interpretazioari edo aplikazio praktikoari buruzko zalantzak kudea ditzakete, eta jokabide-kode horien edo beste edozein arauren balizko urraketak salatu.



## 3.2 Finantza-zerbitzuen hornitzaile gisa dugun erantzukizuna

CaixaBank-ek pertsonak eta horien duintasuna eta funtsezko balioak errespetatzeko eskatzen die bere langileei, Kode Etikoan eta Jarduera Printzipioetan adierazten den bezala. Era berean, giza eskubideei buruzko balioak partekatzen dituzten bezeroekin egin nahi du lan, horienganako eragin-maila harremanaren izaeraren eta inguruabarren arabera izango dela aintzat hartuta.

Illo horretan, CaixaBank-ek eskura dituen baliabide guztiak helburu hauetarako jartzeko konpromisoa hartu du:

- Bere zerbitzuetarako sarbidea bermatzeko, honako arrazoi hauengatiko diskriminaziorik gabe: sexu-identitatea, genero-adierazpena, sexu-orientazioa, etnia, nazionalitatea, sinesmenak, erlijioa, iritzi politikoa, filiazioa, adina, egoera zibila, desgaitasuna eta zuzenbideak babestutako gainerako egoerak.
- Erakundeak bezeroei buruzko ezagutza egokia ("KYC") duela ziurtatzeko politika eta prozedura batzuk izateko, kasu bakoitzean eska daitezkeen lege-eskakizunen arabera.
- Bezeroen eta plantillaren datuen konfidentziasuna, intimitaterako eskubidea eta pribatasuna errespetatzeko.
- Finantza-produktu eta -zerbitzu berriak giza eskubideen arloan dituzten asmoekin bat etorri garatzeko.
- Bezeroei beren egoera eta beharretara egokitzen diren produktuak edo zerbitzuak eskaintzeko.
- Produktuen eta zerbitzuen informazio komertziala egiazkoa, legezkoa, zintzoa eta leiala ziurtatzeko.
- Finantza-zailtasunak dituzten bezeroei aurrea hartu eta konponbideak eskaintzeko, berankortasun-egoeran egon ez daitezen.
- Kolektibo ahulenei zuzendutako programak, produktuak eta zerbitzuak izateko eta finantza-inklusioa bultzatzeko.
- Gizarte-, ingurumen- eta gobernu-arriskuak bezeroak onartzeko prozesuan (ASG onboarding) eta bezero eta eragiketa guztientzako kreditua onartzeko prozesuan integratzeko, iraunkortasun-arriskuak kudeatzeko politika korporatiboan/ASGn giza eskubideen arloan ezarritako irismenaren arabera. Horretarako, CaixaBank-ek konpainiek arlo horretan eta beste irizpide orokor batzuetan duten jarduna ebaluatzen du, eta bezeroek jardunbide onenak aukeratuko dituztela espero du.

Horrez gain, Taldeak Politikaren irismeneko (edozein sektoreko) bezero eta eragiketa guztiei aplikatzeko bazterketa orokor batzuk ezartzen ditu:

- > Finantza-zerbitzurik ez ematea eta ez inbertitzea LANEren (Lanaren Nazioarteko Erakunde) Hitzarmenetan zehazten denari jarraituz haurren edo behartutako lana erabiltzen dutela edo giza eskubideen urraketetan edo gehiegikerietan parte hartu dutela adierazten duten ebidentzia sendoak dituzten enpresetan. Proiektuen finantzaketaren kasuan, inplikaturako hirugarrenei ere aplikatzen zaie bazterketa hori, haien partaidetza esanguratsua denean.



- > Finantza-zerbitzurik ez ematea eta ez inbertitzea beren langileak babesteko osasun- eta segurtasun-politikarik ez duten edo bere langileen azken bost urteetako osasun- eta segurtasun-historialik eskaini ezin duten enpresetan.
- > Talde indigena edo kalteberen eskubideak urratzea edo birkokatzea dakarten operazioak edo proiektuak ez finantzatzea, haien aurretiazko baimen aske eta informaturik gabe.

Horretarako, CaixaBank-ek hainbat politika, printzipio, batzorde, arreta egokiko prozesu eta beste barne-sistema batzuk ditu, bezero-harremanak hasia eta eragiketa jakin batzuetan parte hartzea noiz den egokia edo onargarria ezartzen laguntzen diotenak. Kontrolak Erakundearen prozesu orokorretan sartzen dira, eta aldatu egiten dira bezeroaren tamainaren, sektorearen eta profilararen arabera, bai eta kontrako inaktuaren geografiaren, testuinguruaren eta arrisku potentzialaren arabera ere. Era berean, komenigarritzat jotzen bada, kanpoko laguntza eduki ahal izango da kontrol horiek egiteko.

Gainera, Printzipio hauek eta Erakundeak betetzeko konpromisoa hartua duen erregulazio guztiak betetzeko, CaixaBank-ek bezeroaren arretarako zerbitzuaren Araudi bat du. Azken horren helburua da gardentasunari eta finantza-zerbitzuen bezeroen babesari buruzko araudia aplikatzen dela bermatzea, gatazkak konpontzeko eta haien zerbitzuak merkaturatzeko prozesuak etengabe hobetzeko. Era berean, Erakundeak komunikazio-, kontsulta- eta erreklamazio-bide batzuk ditu, kanal ofizialen osagarri modura.

### 3.3 Hornitzaileekin dugun erantzukizuna

CaixaBank-ek giza eta lan eskubideak zorrotz errespetatzea eskatzen die enpresa hornitzaileei, eta horiek beren balioekin bat datozen portaerak beren praktikan sartzea eta beren balio katera transmititzea sustatzen du.

Illo horretan, CaixaBank-ek honako jardura hauek sustatzen eta barnebiltzen ditu bere praktikan, beste batzuen artean:

- *Hornitzaileen Jokabide Kodea eta Erosketa Printzipioak* ezagutzen eta errespetatzen dituzte enpresa hornitzaileek, CaixaBank-en eta hornitzaileen arteko lankidetzaren esparru orekatu gisa.
- Giza eskubideen arloko alderdiak ezagutzea hornitzaileekiko harreman-faseetan: hornitzailea homologatzeko eta ebaluatzeko prozesua, lizitazioa, kontratazioa eta zerbitzua ematea.
- Erakundeak hornitzaileei buruzko ezagutza egokia duela ziurtatzeko printzipio eta prozedura sorta bat izatea, kasu bakoitzean eska daitezkeen lege-eskakizunen arabera.
- Nazio Batuen Mundu Itunaren Printzipioak ezagutzea eta errespetatzea.
- Hornitzaile homologatuen urteko berrikuspena.
- Erakundearen barrura begira arrisku ertain-handikotzat jotzen diren hornitzaileen kontrol gehigarriak egitea, komenigarritzat jotzen denean. Estandarrak betetzen ez direla ongitzeko beharrezko neurri zuzentzaileak hartzea.

### 3.4 Komunitateko kide gisa dugun erantzukizuna

CaixaBank-en negozio-ereduaren iraunkortasuna zuzenean lotuta dago bere jarduera gauzaten duen lurraldeen oparotasunarekin.

CaixaBank-ek lege aplikagarri guztiak betetzeko, erakunde publikoekin eta justiziarekin lankidetzan aritzeko eta nazioartean aitortutako giza eskubideak errespetatzeko konpromisoa du, edonon diharduela ere. Era berean, CaixaBank-ek konpromisoa hartu du jarduten duen komunitateetan giza eskubideei ekarpen positiboa egiteko. Iraunkortasunaren arloko bere jarduera Printzipioetan eta Klima Aldaketari buruzko Adierazpenean ezarritako misioarekin, ikuspegiarekin, balioekin eta konpromisoekin bat etorrita, hau egiten du:

- Giza eskubideen arloko nazioarteko printzipioen hedapena bultzatzen du bere eragin-eremuaren barruan, eta, horretarako, beste instituzio, nazioarteko erakunde eta gobernu-organismo batzuekin lankidetzan aritzen da ahal den neurrian.
- Giza eskubideei eta Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Helburuei ekarpen positiboa egiten dieten ekimenak eta programak sustatzen eta zabaltzen ditu (adibidez: etxebizitza duina, haurren txertaketa, hezkuntza, gizarte-bazterketako arriskuan dauden kolektiboen eta beste kolektibo ahul batzuen laneratzea, klima-aldaketaren aurkako borroka, ingurumenaren babesa, pobrezia desagerraraztea, etab.).

Horrez gain, CaixaBank-ek hainbat komunikazio-bide ditu, interes-taldeek haien kontsultak, iradokizunak eta erreklamazioak helarazteko.



## 4. Printzipioen implementazioa eta komunikazioa

Langileek, zuzendariak eta gobernu-organismoetako kideek Giza Eskubideen Printzipio hauek ezartzean, Administrazio Kontseiluak onartutako Kode Etikoa errespetatuko da.

Caixabank-ek kontuan hartzen du giza eskubideen arloko jarduera hirugarrenetikiko merkataritza-harremanak hasi, berritu, zabaldu edo etetea. Ildo horretan, printzipio horiek eraginkortasunez ezarriko direla bermatzeko beharrezkoak diren baliabideak erabiltzeko konpromisoa hartzen du.

Giza eskubideen kultura Erakundearen txertatzen da aldizkako komunikazioen eta prestakuntza-ekintzen bidez. Giza eskubideen arloan eragin potentzial handiena duten funtzioak dituzten langileek (besteak beste, *project finance*, lan-harremanak edo segurtasuna kudeatzen duten arloak) prestakuntza espezializatua jasotzen dute.

Era berean, Erakundeak aldizka aztertzen ditu bere jarduerari eta eragiketa guztiei buruzko giza eskubideen inguruko gaiak, eta behar bezalako arretaren prozesuak ezartzen ditu ez-betetzearren arriskua baloratzeko;

prozesu horietan oinarrituta, prebentzio-neurriak edo inpaktu negatiboak zuzentzeko neurriak eta inpaktu positiboak sortzeko neurriak proposatzen ditu.

Zehazki, konpainiak konpromisoa hartzen du ebaluazio edo *assessment* ariketa hori hiru urtean behin egiteko, edo hori baino lehenago, egoerak hala gomendatzen badu.

CaixaBank-ek neurri zuzentzaileak eta ekintza-planak ezartzen ditu Giza Eskubideen Printzipioei lotutako bloke bakoitzerako, giza eskubideen arloan behar bezalako arreta eta ebaluazioa egiteko prozesuan xedatzen den bezala.

Gainera, komunikazio- edo erreklamazio-mekanismo eraginkorrak mantendu eta hedatuko ditu, beren eragiketek zuzenean eragindako pertsonak giza eskubideen arloan eragina izan dezakeen edozein egoeraren berri eman diezaieten. Ildo horretan, CaixaBank-ek etengabe lan egiten du dituen komunikazio-kanalak une oro jardunbide egokienekin lerrokatzeko, eta pribatutasuna babestea eta kaltetuentzako konponketa-prozesuak bermatzen ditu.

Printzipio hauek jendeari aditzera ematen dira eta interes-taldee jakinaraziko zaizkie, eta baita plantilla osoari, enpresa hornitzaileei, bazkide komertzialei eta beste alderdi garrantzitsu batzuei ere, era aktiboan.

## | 5. Gobernu-esparrua

**CaixaBank-en gobernu-organoek** zenbait eginkizun betetzen dituzte ezarritako jarraibide estrategikoak eta kudeaketakoak onartu eta gainbegiratzeko ardurarekin lotuta, giza eskubideen arloan barne, Taldeko sozietate guztien intereserako, bai eta Talde osoaren arriskuen gainbegiratze, jarraipen eta kontrol integratua egiteko ere.

**CaixaBank-en Administrazio Kontseilua** arduratzen da Printzipio hauek eta dokumentu honetan jasotako interes-taldeekiko konpromisoak onartzeaz.

**CaixaBank-en Izendapenen eta Iraunkortasunaren Batzordeak**, besteak beste, ingurumenaren, gizartearen eta gobernantzaren arloko ekimenen jarduna, horien artean giza eskubideei buruzkoa, gainbegiratzeko eta Kontseiluari gai horretan egokitzat jotzen dituen proposamenak aurkezteko eginkizuna du.

**CaixaBank-en Auditoretza eta Kontrol Batzordeak** Printzipio horien gaineko finantza-informazioa lantzeari buruzko arau-eskakizunak betetzen diren berrikusten du, eta urteko kudeaketa-txostenean jasotako informazio ez-finantzarioari lotutako KPIen (Key Performance Indicators) aldizkako jarraipena egiten du.

**Zuzendaritza Batzordeak** funtsezko zeregina du gobernu onaren irizpideak eta printzipioak CaixaBank-en barne-antolamendura eramateko; besteak beste, indarrean dagoen araudia betetzearena eta printzipio horiek bere gain hartu eta eguneratzearena.

**Iraunkortasuneko Batzordea**, Zuzendaritza Batzordearen mendeko organoa dena, CaixaBank-en giza eskubideen inguruko strategiak eta praktikak onartzeaz arduratzen da. Horrez gain, arlo horretako ekimenak sustatu eta, hala badagokio, onartzeaz, onartutako ekimenak koordinatu edo kudeatzeaz eta horien jarraipena egiteaz arduratzen da, bai eta gobernu-organoek onar ditzaten proposatzeaz eta helarazteaz ere.

**Iraunkortasuneko Zuzendaritzaren** eginkizunen artean daude Printzipioak bete daitezen sustatzea eta giza eskubideen errespetuan, defentsan eta sustapenean aurrera egiteko eta Iraunkortasunaren Plan Zuzentzailea

gauzatzeko ekimenak bultzatzea, gobernu-organismoek arlo horretan adostutako ekimenak kudeatzea, CaixaBank Taldean ezarritako ekimenen jarraipena egitea eta barneko eta kanpoko aldizkako *reportinga* egitea. Zehazki, Iraunkortasun Printzipioen berrikuspena Jasangarritasunaren Estrategia eta Jarraipenerako Zuzendaritzari dagokio, eta Giza Eskubideen Behar Bezalako Eginbide eta Assessment prozesua Iraunkortasun Arriskuen Zuzendaritzari dagokio.

Azkenik, **Printzipio hauen eraginpeko arloak eta zuzendaritzak** arduratuko dira beren xedapenak eguneroko jardueretan eta erlazioatutako barne-araudian aplikatzeaz, integratzeaz eta betearazteaz, haien ustez, bai eta horien aplikazioaren jarraipen-kontrolak ezartzeaz eta ezartzeaz ere. Horrez gainera, CaixaBank Taldeko sozietate bakoitzak bermatu beharko du printzipio horien aplikazio egokiaren gaineko kontrolak egongo direla, eta, hala badagokio, antzeko esparruak, printzipioak eta barne-prozedurak garatuko direla.

## 6. Printzipioen eguneratzea

Printzipio hauek bi urtean behin berrikusiko ditu Administrazio Kontseiluak. Hala ere, Iraunkortasuneko Zuzendaritzak, Printzipioen arduraduna den aldetik, urtero berrikusiko du edukia, eta, egoki iritziz gero, aldaketak proposatuko ditu, Administrazio Kontseiluak onar ditzan.

Printzipio hauek berrikustean, kontuan hartzen dira giza eskubideen arloko barneko eta kanpoko interes-taldeei egindako kontsultak, bai eta behar bezalako arreta eta assessment prozesuen emaitzak ere.

Horrez gain, edozein unetan ekin ahal izango zaio Printzipioak eguneratzeari, inplikaturako arloetako edozeinek horiek aldatzeko beharra identifikatu eta aldatzea eskatzen badu. Horretarako arrazoiak, besteak beste, honako hauek izango dira:

- Aldaketak araudi-esparruan.
- Aldaketak negozioaren helburuetan eta estrategian.
- Aldaketak ikuspegian edo kudeaketa-prozesuetan.
- Jarraipen- eta kontrol-jardueretan lortutako emaitzetatik eratorritako aldaketak.
- Behar Bezalako Eginbidearen eta assessment prozesutik eratorritako aldaketak.
- Printzipio hauen edukiari eragiketen dioten politika berriak edo lehendik daudenen aldaketak.
- Antolaketa-egituraren aldaketa, Printzipioen kudeaketan eginkizunak aldatzen dituena.

*Administrazio Kontseiluak 2024ko otsailaren 15ean onartutako Printzipioak*